

### 3.- Munduko desberdintasunen egoera egun.

Azkenaldian gaia honen inguruan egin izan diren lan askotan desberdintasuna areagotu egin dela aipatzen da, bai herrialdeen barnean bertan eta baita herrialdeen artean ere. XX. mendea bukatzean hasieran zena baino mundua desberdinagoa dela adierazten dute lan horiek<sup>1</sup>.

Esaterako hazkunde ekonomikoaren gainean Templek (1999) eginiko lanean honako ondorioa ateratzen du: buru bakoitzeko errenta maila gero eta modu desberdinagoan banatzen dela mundu mailan. Herrialde azpigaratuak garatuen errenta maila lortzetik gero eta urrunago direla ondorioztatzen du, beraien artean esperientzia anitzak badira ere. Errentari dagokionez mundua gero eta polarizatuagoa dagoela (lehen aberatsak zirenak aberatsagoak eta pobreenak pobreagoak).

Zentzu berean Nazio Batuen Unibertsitateak (UNU/WIDER)<sup>2</sup> Garapenerako Nazio Batuen Egitasmoaren (GNBE) laguntzaz nazioarteko errentaren banaketari buruz sustatutako ikerketaren lehen emaitzak zera adierazten dute:

a) 73 herrialdeetatik 48an desberdintasunak areagotu egin dira eta 16 herrialdetan egoera ez da aldatu eta 9 herrialdeetan bakarrik murriztu egin dira.

b) populazioaren % 79arentzat desberdintasunak areagotu ziren edo ez ziren murriztu, murrizketaren onura populazioaren % 16k baino ez du nabaritu.

c) desberdintasunak nabarmen egin dute gora 80 hamarkadatik aurrera, erregio eta herrialdeka intentsitatea desberdina izan bada ere.

d) desberdintasunak herrialde garatu, azpigaratu eta ekialdekoetan guztietan eman dira.

Aipamen berezia behar du GNBE-ak. Erakunde hau izan da nazioarteko desberdintasunari buruzko eztabaida ireki duena, bere txostenetan toki esanguratsua eskainiz gaiari. Horrela, 1999ko Giza Garapenaren Txostenean nazioarteko desberdintasuna areagotu egin dela plazaratu zuen honako datuak eskainiz. Herrialde aberatsenaren errenta maila eta txiroenaren arteko aldea handitzen joan dela, 3 bider handiago izatetik 1820. urtean, 11 bider izatera pasatzen dela 1911. urtean, 35 bider 1950. urtean, 44 bider 1973. urtean, eta 72 aldiz handiagoa 1992. urtean izatera iritsi arte. Aldeak handiagoak dira % 20 kontutan hartu beharrean % 5 egiten bada. Mundu Bankuak berak ere onartzen du herrialde aberatsenen errenta maila pobreenarekiko handitu egin dela zenbatekoak ezberdinak ematen baditu ere. Horrela Munduko Bankuaren arabera herrialde aberatsenen batz bestek errenta pobreenarena baino 11 bider handiagoa zen 1870. urtean, 38 aldiz handiagoa izatera pasatu zen 1960. urterako eta 52 aldiz 85. urterako.

Are gehiago, berdintasun izugarri hauen zilegitasunaren aldeko diskurtsoa nagusitu egin da egun esparru zabaletan. Kapitalismoaren garaipena eta ideia liberalen nagusitasunak, ongizate estatuaren oinarrian zegoen berdintasunaren aldeko iritzia aldatzea ekarri du. Gizarte bakoitzaren baitan eta nazioartean ematen ari den desberdintasunaren hedatzea

---

<sup>1</sup> Hauetako batzuk [www.iadb.org/oc](http://www.iadb.org/oc); [www.worldbank.org/poverty/inequal/read](http://www.worldbank.org/poverty/inequal/read) edo Sutcliffe (2002) ikus daitezke.

<sup>2</sup> Proiektuaren izena world income inequality data basea da eta honako helbidean ikusi daiteke: [www.wider.unu.edu/wiid/wiid.htm](http://www.wider.unu.edu/wiid/wiid.htm) eta oraintsu eguneratu berria da. Aipatu emaitzak, ordea, aurreko bertsioan oinarrituta daude 1950-95 epealdirako.

onartu egiten da halabeharrea (Putterman, Roemer eta Silvestre (1998)). Ez dago beste alternatibarik. Merkatuaren funtzionamenduak agintzen du eta kito. Ondorioz, herrialde garatuak naturaltasunez onartu dute azken bi hamarkadetan herrialdeen arteko desberdintasunak, honekiko inongo konpromezu argirik hartu gabe. Nazioarteko erakundeetan nagusitu den diskurtso neoliberalak zeresan handia izan du emaitza honetan zalantzarik gabe. Izan ere, pentsamendu hau nagusia izan da bai pentsamendu akademikoan eta baita aplikatutako politiketan ere. Aurkako ikuspegi bakarra globalizazioaren aurkako mugimenduak plazaratutakoa izan da.

Hurrengo kutxa argi ikusten denez, orain arte egin dugun diagnostikoa ez da errenta desberdintasunen inguruan egiten den bakarra. Orainsu kaleratutako hainbat ikerketen emaitzak nabarmen kontrajarriak dira. Batzuentzat errentaren banaketak hobera egin du (desberdintasunak murriztu) eta beste batzuentzako aldiz, okerrera.

## I. kutxa. Konbergentzia edo dibergentzia: azken iritzietako batzuk

"Ebidentziak nabarmen iradokitzen du errentaren desberdintasun globala hazi egin dela azken hogeit urteetan. Aldaketa hori neurtzeko estandarrik eta horretarako arrazoiak zalantzan jartzen badira ere, joera argia da." Robert Wade ("Inequality of World Incomes: What Should be Done?").

"Globalizazioaren eta neoliberalismoaren aurrerakada itzela... desberdintasunaren hazkunde harrigarriarekin batera gertatu da..." Ignacio Ramonet (*Le Monde Diplomatique*, 1998ko maiatza).

"... pobrezia eta desberdintasunaren hazkundera eta globalizazioaren zabalkundera elkarren ondoan gertatu dira. Kontrasteak dituen munduan, herrialde aberatsen eta pobreen arteko eta pertsona aberatsen eta pobreen arteko zuloak zabaltzen jarraitzen du." Kevin Watkins (Background paper for UNDP, *Human Development Report* 1999).

"Herrialde pobreen eta aberatsenen errenten arteko zuloak zabaltzen jarraitu du. 1960an herrialde aberatsenetan bizi zen munduko biztanleriaren %20aren errenta %20 pobreenarena baino 30 aldiz handiagoa zen, 1997an 74 bider handiagoa. Hori mende biko joeraren jarraipena da." (UNDP, *Human Development Report* 1999, 1. kap., 36. or.).

"1960an 20 herrialde aberatsenen *per capita* BPGa 20 herrialde pobreena baino 18 aldiz handiagoa zen. 1995erako, tarte hori zabaldu egin zen eta 37 aldiz handiagoa zen, sarritan dibergentzia deltu zalon fenomeno... Zifra horiek erakusten dute herrialde arteko desberdintasunak hazkunde latza izan duela azken 40 urteetan." (Munduko Bankua, *World Development Report* 2000/2001, 3. kap., 51. or.).

"Herrialde aberats eta pobreen arteko tarte inoiz baino handiagoa da gaur egun", Richard Jolly, *Global Inequality, Wider Angle*, 1999ko abendua.

\*\*\*\*\*

"...mundu osoko dibergentzia *per capita* BPGean etengabe hazi da mendearen hasieratik 1980ko hamarkadako lehen urteetara arte. Dena den, 1980 inguruan joera hori erabat aldatu zen. Azken urteetan Indiak eta, bereziki, Txinak izan dituzten hazkunde tasa handiagoez nolabaiteko konbergentzia ekarri dute." (A. Boltho eta G. Toniolo, "The Assessment: The Twentieth Century: Achievements, Failures, Lessons", *Oxford Review of Economic Policy*, 15 lib., 4 zk.).

"Grosso modo, munduko desberdintasunaren gorengo puntua XX. mendeko erdialdean izan zen, mende oso batean etengabeko dibergentzia izan ondoren. Hortik aurrera, eta bilakaera itzel horrekin konparatuta, azken 50 urteetan behatutako aldaketek txikiak ematen dute eta egoera egonkortzen dagoen itxura du." (F. Bourguignon eta Christian Morrisson, "Inequality among world citizens: 1820 1990", zirikorra, 2001eko otsaila).

"...errentaren desberdintasun globalaren bederatzi neurri kalkulatu genituen. Horiek guztiak irudi bera ematen dute: desberdintasuna asko jaitsi zen azken bi hamarkadetan." (Xavier Sala i Martin, *The World Distribution of Income* (herrialdeko banaketa indibidualekin kalkulata), *NBER Working Paper* 8933).

"Nazioarteko desberdintasuna modu egokian neurtzen bada erosteko ahalmenaren parekotasunean oinarrituta (prezio-maila ezberdinetarako doitu), kanbio-tasa ofizialak erabili behar, eta herrialdeak beren biztanleriaren arabera haztatzen direnean, nazioarteko desberdintasunaren neurri fidagarriek erakusten dute errenten konbergentzia gertatu dela 60ko hamarkadako azken aldetik aurrera." (Arne Melchior, *Global Income Inequality: beliefs, facts and unresolved issues*, *World Economics*, 2. lib., 3. zk. 2001eko uztaila-iraila).

"...ebidentziak iradokitzen du mundu osoko desberdintasunak azken urteetan izandako hazkundera erlatiboki txikia dela 19. mendean izandako hazkunde askoz handiagoekin alderatuta", Munduko Bankua, *World Development Report* 2000/2001.

Laurogei hamarkadatik honako bilakaera da eztabaidagai nagusia. Batzuk, Xala i Martin; Boltho eta Toniolo; eta Melchior-ek gutxitu egin dela diote. GNBE-ak, Wade-k eta Ramonet-ek areagotu egin direla argudiatzen dute. Sutcliffek gutxitu egin dela baina ñabardura garrantzitsuak egin behar direla, eskuragarri daude datuen arabera eta ikerketak biltzen dituzten herrialdeen arabera.

Sutcliffe-k (2002) errentaren desberdintasunaren bilakaerari dagokionez lanek jorratzen duten denbora esparrua eta aztertzen duten banaketa motaren (nazio-artekoa edo globala) arabera sailkatu beharra dagoela plazaratzen du, emaitza eta joera ezberdinak direlako. Horrela epeari dagokionez epe luzeak eta epe ertainekoak bereizten ditu.

hauen analisia sakona egin eta gero honako ondorioetara iristen da (ikus informazio osoa 4. eranskinean):

**Epe luzeko** analisietan denetan nagusitzen da desberdintasunen hedapena gini koefizientearen handitzearekin islatua.

Boltho & Tonoliok (Maddisonen datuak, 49 herrialde, 1900-98ra) 0,393 izatetik 0,496 izatera igo dela adierazten dute; gainontzeko ikerketek ere emaitza antzerakoak.

Hauk bakarrik herrialdeen arteko desberdintasunak aztertzen dituzte. Ez daude barne banaketaren inguruko informazio epe luzeentzat. Analisia azken urteetan baino ez da posible.

**Epe ertainekoak** kontutan izanda emaitzak ilunagoak dira. Nazioarteko banaketari dagokionez Boltho & Tonolioren ikerketak murriztu egiten dela ondorioztatzen du (Maddisonen datuak, 49 herrialde, 1980-98ra) 0,544 izatetik 0,496 izatera jaisten da.

Sutcliffe (MBren datuak, 122 herrialde, 1980-98) 0,618 tik 0,54ra, baina Txina kenduta desberdintasuna areagotu egiten da (0,555tik 0,561ra). Egoera okerrera egin duen herrialde asko ez daude sartuta datu faltagatik. Emaitzak tentuz hartu beharra dago. Bestalde, Sutcliffe berak (1980, 1990, 1998, 35 herrialde), 0,6331tik 0,4212ra jaisten dela adierazten du.

#### **Banaketa globalaren bilakaeraren epe ertaineko analisien emaitzak:**

Milanovic (1988-93 epean) 0,628 tik 0,660ra igotze dela adierazten du.

Bourgignon eta Morrison-ek (datu propioak erabiliz, 1980-92) banaketa berdin geratzen dela diote.

Sutcliffek beste kalkulu batzuk egiten ditu nahaste hau argitzeko. Epe horretako hiru urteetako (1980, 1990, 1998) datuekin egindakoak, alegia; bai gini indizea eta baita 20/20 eta 10/10 ratioak ere, nazioarteko eta banaketa globala kontutan hartuta. Emaitzak honako hauek dira:

Bietan nazioarteko mailan eta baita banaketa globalean desberdintasunak murriztu egin direla ikus dezakegu. Kontua da kalkulu hauetan (eta arestian aipatu bestelako ikasketetan ere) urte horietarako edo hurbileko beste urte baterako beharrezkoen diren datuak eskuragarri dituzten herrialdeak baino ez direla sartzen. Horrela hainbat herrialde esanguratsuen egoera ez da kontutan hartzen (bereziki bere egoera nabarmen okerrera egin duen hainbat Sahara azpiko herrialde) eta honek lortutako emaitzak eta errealitatea bat ez etortzea suposatzen dezake. Are gehiago, Txinaren eragina erabakiorra da.